



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OIONgo Udala
BANDOA

Gaia: 2020ko Esker Onezko jaiak bertan behera geratu dira.

Oyón-Oiongo Udaleko Udaltzakerak, uztailearen 8an, honako hau erabaki zuten:

- 1) 2020ko Esker Onezko jaietan antolatutako ekintzak bertan behera uztea. Jaiak 2020ko abuztuaren 26a eta 31 bitartean izango ziren.
- 2) Jaiak bertan behera uzteko erabakia argitaratzea Udalaren kanalean: udal webgunea, "Info pantailak" eta Whatsapp aplikazioko difusio-zerrenda.
- 3) Herritarrei egoera ulertzeko eta arduratsuak izateko eskatzea.
- 4) Jakinaraztea antolatzen diren formatu txikiko ekintzei buruzko informazioa emango dela kanal publikoen bidez.

Aldeko botoak: 11 (hamaika); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Erabaki hori hartu dugu jaietan ehunka pertsona pilatzen direlako gure kale, plaza, taberna eta txokoetan, eta ekintza masiboak egiteko aukera egon ohi delako. Gure proposamena da gure jaiak formatu txikiko omenaldi bat egitea, aglomeraziorik sortuko ez duena eta jaien oroitzapena mantentzen lagunduko diguna bizi dugun garai latz honetan. Espero dugu 2021. urtean jaiak eta alaitasuna itzultzea eta Katxia plazara jaitsi ahal izatea.

Antolatzen diren formatu txikiko ekintzei dagokienez, informazioa emango da udal webgunearen, "Info pantailen" eta Whatsapp aplikazioko difusio-zerrendaren bidez.

Oharra: Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailburuaren 2020ko uztailearen 15eko Agindua.

Uztailearen 15ean Osasun sailburuak Agindu bat eman du. Horrek ekainaren 18ko Agindua aldatzen du eta udal honek hartutako erabakia indartzen du. Horrez gain, besteak beste, honako hauek ezarri ditu:

- Maskarak erabiltzea nahitaezkoa izango da (Bigarrena, 1.3).
- Baliogabetu egin dira emandako ordutegi-luzapenak eta iragarri du ez dela beste luzapenik baimenduko (Bigarrena, 3).

Agindu osoa honako esteka honetan ikusi daiteke:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/er/bopv2/datos/2020/07/2002784e.shtml>

Oyón-Oion, 2020ko uztailearen 16a.
Alkatea, Eduardo Terroba Cabezón.

